

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

7. kapitulua

Menderakuntza bidezko perpausak -IV-

-Konparaziozkoak 15:50

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, konparaziozko perpausen atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: **ETXE BILA**

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoiko pertsonaiek zer esan duten azaldu.

Esaterako, pertsonaiak zera esaten du:

LOREA.- Ez dakit, ba, niri Gorbeia kalekoa **gehiago** gustatzen zait, Ubide kalekoa **baino**. Hiri erditik **gertuago** dago eta bati baino **gehiagori** entzun diot Gorbeia kalea oso lasaia dela.

Ikasleek honela azaldu beharko lukete:

*Loreak esan du Gorbeia kalekoa gehiago gustatzen zaiola Ubide
kalekoa
baino. Hiri erditik gertuago dagoela eta bati baino gehiagori entzun diola
Gorbeia
kalea oso lasaia dela.*

-Idatzitakoa ozen irakurri klasekideen aurrean..

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu. Dramatiko luzea ez ezik, beste atalak ere ikus ditzakezue birpasa modura.

konparaziozkoak

Konparaziozko perpausak, izenak bera adierazten duen bezala, konparazioak edo erkaketak egiteko erabiltzen dira.

Bai nolakotasunen arteko aldea azpimarratzeko,

-n baino ...-ago

Aizkorri Anboto **baino** altuagoa da.

Azterketa uste **baino** zailagoa izan da.

Jupiter Saturno **baino** urrutiago dago.

bai zenbatasuna adierazteko,

-n baino gehiago / -n baino gutxiago

Nik zuk **baino** diru **gehiago** daukat.

Gaur atzo **baino** jende **gutxiago** etorri da.

Bermeon Ondarroan **baino** itsasontzi **gehiago** ala **gutxiago** dago?

Gogoratu, konparazioaren bi osagai kasu berean jartzen direla,

beti:

Xabierri Unairi **baino** luzeagoa egin zaio hilabete hau.

Amaiarekin Nagorerekin **baino** gusturago bizi zen.

gehiago eta *gutxiagoren* aurrean jartzen den hitza mugagabeen
doa, kasu-markarik gabe.

Jende **gehiago** hurbildu da mendira hondartzara **baino**.

Jokinek Mirenek **baino** diru **gutxiago** dauka.

Beste batzuetan konparaziozko perpausen bitartez, berdintasuna
azpimarratu nahi izaten da.

Bai nolakotasuna adierazteko,

-n bezain

Burdina ez da altzairua **bezain** gogorra.

Lehenengo diskoa bigarrena **bezain** ona da.

Zuek ez zarete uste duzuen **bezain** onak.

bai zenbatasuna adierazteko,

-n beste / -n adina

Nahi duzuen **beste** galdera egin diezaiokezue irakasleari.

Emakumezkoek gizonetzkoek **adina** diru irabazi behar lukete
lan berdinarekin truke

Ez zen nik espero nuen **beste** jende joan antzerkira.

Gogoratu, *besteren* atzean doan hitza, mugagabeen jartzen dela,
inolako kasu-markarik gabe.

Gasteizen hemen **beste** lagun daukat.

Jonek nik **beste** lan egiten du.

Izen neurgaitzekin *-ko* atzizkia eransten zaio eta atzeko hitza mugatuan deklinatzen da.

Gaur ez du atzo **besteko** hotzik egiten.

Nestorrek Jonek **besteko** indarra dauka.

ETXE BILA

- LOREA.-** Ez dakit bada, niri Gorbeia kalekoa **gehiago** gustatzen zait, Ubide kalekoa **baino**. Hiri erditik **gertuago** dago eta bati baino **gehiagori** entzun diot Gorbeia kalea oso lasaia dela.
- MIKEL.** Bai, hori guztia egia da, baina **txikiagoa** da eta **zaharragoa**. Zuri gustatzen zaizun etxe horrek Ubide kalekoak **baino** hogeit urte **gehiago** dauzka.
- LOREA.-** Bai, horretan arrazoi duzu, baina nik lasaitasuna maite dut eta Ubide kalean zuk uste duzun baino **askoz** ere auto eta kamioi **gehiago** ibiltzen da.
- MIKEL.-** Bai, baino etxea berriagoa denez, leihoak Gorbeia kaleko etxeak **baino** **isolatuagoak** ditu.
- OLATZ.-** Begira, beste etxe honek itxura ona dauka. Entzun. Hirurogeita hamar metro karratu, hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- MIKEL.-** Zer kaletan dago?
- OLATZ.-** Barragan kalean.
- MIKEL.-** Barragan kalea, ez dakit non dagoen.
- OLATZ.-** Bai, badakizu. Gizarte-etxearen atzean.
- MIKEL.-** A! Bai. Kale lasaia da eta hiri erditik gertu dago. Hori bai, etxe hori Gorbeia kalekoa eta Ubide kalekoa **baino** **garestiagoa** izango da. Ez al da hala?
- OLATZ.-** Ez pentsa, hogeita bost milioi balio du, Ubide kalekoak **beste**.

- MIKEL.-** Hogeitabost milioi? Ez dago gaizki. Zer iruditzen zaizu?
- LOREA.-** Aproposa ematen du. Ezin esan Ubide kalekoak **adinako** lasaitasuna eskaintzen duenik, baina, egokia ematen du.
- MIKEL.-** Orduan zer? Joango al gara ikustera?
- LOREA.-** Lasaitu, Mikel. Oraindik etxe asko dauzkagu aztertzeke.
- MIKEL.-** Urduri jartzen hasi naiz. **Zenbat eta etxe gehiago** ikusi paperean, **orduan eta urduriago** jartzen naiz.
- LOREA.-** Ez daukazu esan beharrik. Agerikoa da. Handi **bezain** ipurterrea zara, Mikel.
- MIKEL.-** Beno, ez gaitzen has. Zenbat etxe gehiago ikusi behar dugu ba?
- LOREA.-** Hemen daukazu zerrenda.
- MIKEL.-** Horiek denak? Beno, beno, erotu egin al zarete? Arratsalde osoa eserita pasatzeko **beste etxe badago** hor!
- OLATZ.-** **Zenbat eta arreta handiagoz** aztertu, **orduan eta aukera handiagoa** etxe aproposa aurkitzeko. Badakizu esaera zaharra: azkar eta ongi usoak hegan.

Aipatu beharra dago euskaraz, inguruko hizkuntzetan ez bezala, nolakotasunezko konparazioak egiteko, forma bakarra daukagula eta gehiagotasuna adierazten duela.

Beraz, gutxiagotasuna adierazteko, eskuarki, kontrako adjektiboa edo adberbioa erabili ohi da; edo berdintasunezko konparazioa ezezkoan. Esaterako, *mas alto* edo *plus alte* edo *more tall* euskaraz *altuago* esaten dugu; baina, *menos alto*, *moine alte* edo *less tall* esateko euskaraz *baxuago* edo *ez hain altu* esapideak erabiltzen ditugu.

- | | |
|----------------|--|
| MIKEL.- | Volga ibaia Missisipi ibaia baino luzeagoa da, ezta? |
| LOREA.- | Ez, Volga ibaia Missisipi ibaia baino laburragoa da. |
| OLATZ.- | Ez, Volga ibaia ez da Missisipi ibaia bezain luzea. |

- | | |
|----------------|--|
| MIKEL.- | Anderren gurasoak Jokinenak baino zaharragoak dira. |
| LOREA.- | Ez, Anderren gurasoak Jokinenak baino gazteagoak dira. |
| OLATZ.- | Ez, Anderren gurasoak ez dira Jokinenak bezain zaharrak. |